



# Kronikak eta iruzkinak

## Zuzenbide Penaleko eta Zuzenbide Zibileko Koadernoak

(Workbooks on Criminal Law and Civil Law)

ALKORTA IDIAKEZ, Itziar

Zuzenbide Zibileko irakasle titularra  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Manuel de Lardizabal, 2  
20018 Donostia  
dcpalidi@sd.ehu.es

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena

Zuzenbide Penaleko irakasle titularra  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Sarriena auzoa z.g.  
48940 Leioa  
edplagoj@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 95-97]

Sarrera eguna: 2004.01.13  
Onarpen eguna: 2004.05.10

Jon-Mirena Landa Gorostiza eta Itziar Alkorta Idiakez unibertsitateko irakasleek eskuliburu bana prestatu dute, Zuzenbide Penalari buruzkoa lehenak, eta Zuzenbide Zibilaz bigarrenak. Beren didaktikotasun eta argitasuna dela-eta, bereziki Zuzenbide ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleei daude zuzenduta. Koaderno hauek badute ezaugarri berezirik, gainera: Interneten daudela eskuragai.

**Giltza hitzak:** Zuzenbide Penal. Zuzenbide Zibila. Eskuliburuak. Internet.

Los profesores universitarios Jon-Mirena Landa Gorostiza e Itziar Alkorta Idiakez acaban de editar dos manuales en euskera, uno sobre Derecho Penal y otro sobre Derecho Civil, dirigidos principalmente a los estudiantes, dada su marcada vocación didáctica. A resaltar que ambos cuadernos se han editado en formato electrónico y que se encuentran disponibles en Internet.

**Palabras clave:** Derecho Penal. Derecho Civil. Manuales. Internet.

Les professeurs d'université Jon-Mirena Landa Gorostiza et Itziar Alkorta Idiakez viennent d'éditer deux manuels en basque, l'un sur le Droit Pénal et l'autre sur le Droit Civil, adressés principalement aux étudiants, étant donné leur vocation didactique marquée. Il faut souligner que les deux cahiers ont été édités en format électronique et qu'ils sont disponibles sur Internet.

**Mots clés:** Droit Pénal. Droit Civil. Manuels. Internet.



Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidea irakasten hasi ginenetik hainbat urte igaro dira, oharkabeaz bezala. Baleren Bakaikoa, Karmelo Busturia eta Santi Goñi izan ziren Zuzenbide Fakultatean euskaraz irakasten hasi ziren lehenak, 1985. urtetik aurrera. Gu beranduago heldu baginen ere, denbora horretan irakasgaiaz jabetzeko eta azalpen-metodo xume batzuk eskuratzeko ahaleginak egin ditugula sinetsi behar zaigu. Gure ikasle izandakoei galdetu beharko litzateke emaitza nolakoa izan den eta, benetan, gure trebakuntzak hobera egin ote duen urte horien buruan. Edonola ere, uste izan dugu badela garaia urteotan landu eta orrazten saiatu garen "klaseko apunteak" euskarri txukun batean jarri eta ikasleei eskaintzeko.

Agertzen lehenak, *Zuzenbide Penaleko* eta *Zuzenbide Zibileko Koadernoak* izan dira. Jon-Mirena Landa irakasleak landu du Zigor Zuzenbideari buruzkoa, eta nik neuk Zuzenbide Zibilaren gainekoa. Eskuliburu hauen barrentasunak (gaien banaketa, metodoa, eta horrelakoak) azaldu baino lehen, hitz bi esan nahi genituzke beste gai garrantzitsu batzuei buruz.

Euskara juridikoaren auzia aipatu behar da lehenik. Izan ere, euskara zientifikoa unibertsitate-ra heldu zenetik urte batzuk igaro badira ere, egun eta oraindik egiten ari garen zerbait dela aitortu behar dugu. Denbora honetan, beste erakunde batzuekin batera, euskarazko Zuzenbideak behar dituen termino berriak proposatu ditugu - baita bateren batzuk baztertu ere-, esamoldeak eta lokuzioak sortzen eta zirkulazioan jartzen saiatu gara, eta, batez ere, hizkera tekniko ziur eta sinesgarria erabiltzeko ahaleginak egin ditugu. Horrek guztiak erantzun eskasa izan du oraingoz "praktikaren mundua" esaten diogun horretan. Egun, oso gutxi erabiltzen da euskara bulego profesionaletan, eta are gutxiago epaitegietan. Egia da idatziz behintzat erabiltzen dela administrazioetan, baina euskara juridikoa, nagusiki, Zuzenbidea irakasteko hizkuntza bat dela aitortu beharra dago.

Hizkerari buruz esandakoak soka luzea du, eta aurkezpen hau ez da leku egokia gogoeta horietan luzatzeko. Edonola ere, ikasliburu honetan darabilgun hizkera juridikoari buruz zenbait ohar egin behar ditugu aurrera jarraitu baino lehen. Erakundeen eta legeen izenei buruz, honako irizpidea jarraitu dugu: euskarazko izen ofiziala errespetatzea, eta euskarazko izen ofizialik ez dutenentzat, berriz, gehienek hobetsitako izenak erabiltzen saiatu gara; hala nola, Konstituzio Auzitegia, Auzitegi Gorena, eta Kode Zibila, Zigor Kodea, eta abar. Erakunde eta lege ezagunenak laburdura bidez eman ditugu, euskarazko bertsioetik abiaturik: EK (Espainiako Konstituzioa) eta KZ (Kode Zibila), eta AG (Auzitegi Gorena) adibidez. Terminologiari dagokionez, Euskaltzaindiaren hiztegi batua eta Euskalterm izan dira erreferentzia nagusiak. Aukera bat baino gehiago dagoen kasuetan, gehien erabiltzen dena ematera jo

dugu, betiere ulergarritasuna izanik irizpide nagusia. Antton Elosegi irakaslearen ikuskatze lanak eta aholkuek eman digute askotan askatu beharreko korapiloen giltza. Edonola ere, terminologian ez dago azken hitza ematerik, eta behin-behinekotzat hartu behar dira Koadernoaren aukerak.

Bada, hizkuntzaz gain, azalpen honetan aipatzea merezi duen beste kontu bat: eskuliburu hauen euskarriarena, hain zuzen. Uste izan dugu informatikaren garaian zilegi dela, eta baita onuragarri ere, euskarri elektronikoak eskaintzen dizkigun abantailaz baliatzea. Batetik, Koaderno hauek Internet bidez eskainiz, irakasleok aukera hobea dugu gaiak urtero berritu eta eguneratzeko. Bestetik, euskarri horrek, paperak ez bezala, informazio-leihoak irekitzeko parada ematen du. Koadernoetan zehar nabigatzean, gune interesgarrietara bideratuko zaituzten hainbat esteka aurki daitezke: auzitegietako epailetara, ilustrazioetara, doktrinazko testu zatietara, Interneteko orri juridikoetara eta abar. Euskara Errektoreordetzako web orrian eskegita daude, beraz, Koadernoak (<http://testubiltegia.ehu.es>), Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbideko ikasleen eskura.

Zuzenbide Zibileko Koadernoaren oinarriko egiturari gagozkiola, lehenik eta behin pertsonari buruzko liburukia sortu dugu, **persona fisikoak** eta **persona juridikoak** atalak barne hartzen dituena. Hortik aurrera jorratu beharreko gaiak, oro har, **obligazioak** eta **kontratuak, eskubide errealak, familia** eta **oinordetza** dira.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateak plan berria jarri du abian 2003-2004 ikasturtean. Plan berri horretan eskaintzen den Zuzenbide Zibila irakasgaiaren bizkarrezurrak aipaturiko gai nagusiak ditu ardatz, nahiz eta aldaketa pozgarri bat ere baden tartean: Euskal Zuzenbide Zibila gaien artean ardatzetako bat bihurtu izana, alegia.

Lehen Koaderno hau garrantzitsua izan da guretzat, ez lehena delako bakarrik, baita bestelako arrazoiengatik ere; nagusiki, Zuzenbide Zibileko Koadernoaren metodoa finkatzeko balio izan digulako.

Lehenik eta behin, ikasgaika banatu dugu liburuxka. Horietako bakoitzak Lizentziaturako ikasketa programari erantzuten dio. Ikasgai bakoitzaren barnean lau atal aurkituko dituzu: **araudia, oinarriko kontzeptuak, gomendatutako irakurketak** eta **ariketak**.

Azal ditugun, labur, horietako bakoitzaren nondik norakoak. Ezer baino lehen, ikasgai bakoitzean aztertuko ditugun arauen zerrenda azaltzen da. Izan ere, gure sistema juridikoa, Europa kontinentalekoa alegia, legeetan oinarritzen baita, eta ez epaileen erabakietan, *Common Law* delakoan gertatzen denez; beraz, indarrean dagoen lege-sistema hori azaltzea izan da gure ataza nagusia.

Hurrengo atalean, **oinarrizko kontzeptuei** buruzkoa, alegia, irakasgaiaren funtsezko ideiei edo erakundeei buruzko azalpen argi eta mamitsuak ematen saiatu gara. Horiek guztiak modu ulergarri eta xumean, adibideen laguntzaz, irakurleak (hots, ikasleak) haiei buruz aurretik ezer jakingo ez balu bezala jokatu, ongi baitakigu ezinezkoa dela ulertzen ez dena ikastea.

Ondoren, **gomendatutako irakurketa** atala landu dugu. Irakurketa osagarri horiek gaia hobeto ezagutzeko balio behar dute, eta oinarrizko azalpenetan bazterrean utzi beharreko hainbat ñabardura eta matiz berri ikasiko dira haiei esker. Bada, gainera, beste onurarik: erdaretako hizkuntza juridikoetara hurbiltzeko aukera dago idatzi horien bitartez, erakunde eta figura juridikoak nahiz esamoldeak gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta, zergatik ez, latinez nola eman jakitea balio handikoa baita gure gizartean.

“Zati teorikoa”-ren atzetik, **ariketak** datoz. Bertan jaso ditugu gaiari erantzuten dioten epai nagusiak. Izan ere, atal horretan oinarrizko kontzeptuei buruz lortutako ulermen maila neurtzeko aukera ematen da batetik, eta, bestetik, teoria gaindituz, errealitatean gertatu diren edo gerta daitezkeen kasuak nola tratatu ikasten da.

Zuzenbide Penaleko Ikasgaiari dagokienez, material honen egilea Jon-Mirena Landa Gorostiza doktorea da, Zuzenbide Penaleko irakasle titularra, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean (Leioako Atalean) jarduten duena.

Hitzaurrean azaltzen duenez, (sare)liburu honek Zuzenbide Fakultatean eskaintzen den titulazioari dagozkion Zuzenbide Penala I (Zati Orokorra) eta Zuzenbide Penala II (Zati Berezia) ikasgaien oinarrizko materialak biltzen ditu. Teoriaren arloan eta kasu praktikoen arloan erabiltzekoak diren ezinbesteko edukiak eta eskemak ematen ditu eskuliburu honek. Aldi berean, Zuzenbide penalerako sarrera eta sakontzeko materialak eskaintzen dira. Ikuspegi praktikotik, Zuzenbide penaleko benetako kasuei nola egin behar zaien aurre (metodologia) jorratzen da, eta teknika juridiko-penala lantzeko kasu ugari ematen dira, norbanakoak horien gainean bere kabuz lan egin dezan. Azkenik, terminologia juridiko-penala sistematizatzeko eta normalizatzeko tresna ere badugu, liburuak bukaeran dakarren hiztegiaren bitartez.

Testua, lehenik eta behin, Zuzenbide Fakultatean Zuzenbide penala I edota II ikasi behar dutenentzat egina dago, klase teoriko zein praktikokoak errazagoak, sakonagoak eta kalitate handiagokoak izan daitezten. Halaber, liburuak oinarrizko kontzeptuak argitzera zuzentzen denez, Zuzenbide penalean lehenengo urratsak eman nahi dituen edonorentzat izango da baliagarri. Aldi berean, nor bere kabuz teknika juridiko-penala

menperatzeko eta jorratzeko lan-tresna egokia ere izan daiteke.

*Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak* honek bai Zati orokorreko bai Zati bereziko *eskema praktikokoak*, *kasu praktikokoak*, *eskema teorikoak* eta *oinarrizko bibliografia* biltzen ditu, eta, bukaeran, lan osoan zehar erabilitako terminologiaren bilketa (*hiztegia*) dakar. Egiturak berak hasiera batetik argi uzten du lanak alderdi praktikoei lehentasuna ematen diela, alderdi teorikoa ere gutxietsi barik. Horregatik, bai Zati orokorraren hasieran, bai Zati bereziarenean, lehenik eta behin **Eskema praktikokoak** azaltzen dira. Hauen bitartez, Zuzenbide penaleko kasu praktikoean azaltzen diren arazorik funtsezkoenentzako irtenbide-ereduak eskaintzen dira era sistematikoan. Zati orokorrari dagokionez, delituaren teoriaren inguruko eskemak dira gehienbat; alegia, edozein delituren atzean egon beharreko ezaugarriak modu sistematikoan lantzen dituztenak. Zati bereziaren kasuan, ordea, *kalifikazio-idazkia* erdigunean dugu, hain zuzen ere, jarduera deliktiboen aurreko tipifikazioa, partaidetza gradua, zigorra eta abar ezartzeari begira.

*Eskema praktikokoak* landu ondoren, zenbait **kasu praktikoko** sailkaturik ematen dira, gehienetan gaztelaniazko epaietatik ateratakoak, zenbaitetan dotrina zientifikoak sorturikoak. Gaien araberrako sailkapenak berak nabarmentzen du kasu praktikoko bakoitzean zein den landu beharreko alderdi edo arazo juridiko-penalik garrantzitsuenak.

Alderdi praktikoen ondotik, **Eskema teorikoak** deituriko atala dator. Horren helburua, Zuzenbide penalaren inguruko jakintza teorikoa landu edota sakondu nahi duen orori euskarazko egituraketa sistematikoa eskura jartzea besterik ez da.

Bukatzeko, **Oinarrizko bibliografia** —orokorra zein alderdi praktikokoak bereziki lantzeko— eskaintzen da, aurreko atalekin gertatzen zen bezalaxe Zati orokorrekoa eta Zati berezikoak bereizirik. Liburu honek, azkenean, **Hiztegia** deitutakoa dakar.

Zuzenbide koaderno hauen egitura eta nondik norako zehatza gorabehera, helburu nagusi bat genuen egileok esku artean: hainbat urtetan zehar ahoz egindako jakintzaren transmisioa zintzotasunez idatziz eskaintzea, hori baita hastapenetan dauden diskurtso juridikoak bideratu, zuzendu eta hobetzeko bide egokia. Irakurle, erabiltzaile, ikasle, operadore juridiko oro eta abarren parte-hartzea dugu orain ezinbestekoa, egin beharreko kritikak jaso ezan testuak motelago joko baitu hobera eta, aldi berean, behar bezalako komunikazio eraikitzailerik gabe, nekez jarri ahal izango ditugulako zimentarriak etorkizunean —hurbilekoan izan dadila— euskara juridikoa esparru akademikotik atera dadin, benetako Justizia Administrazio euskaldun bat iritsi artean.